



2022eko IRAILEKO EFEMERIDEAK



ZERUKO MAPA IRAILA 2022. ZIRKUPOLARRAK IPAR HEMISFERIA
DEKLINAZIOA +45º /+ 90º ; IGOERA ZUZENA : 0 -24 Ord.



Zeruko mapari buruzko oharra.
Bibliografia, webgrafia eta gomendatutako liburuak, aldizkariak eta programak.

BEHAKETA PROPOSAMENAK

• Begi hutsez:

- Hilaren 2an: 11:00etan Zeifeidarraren Eta Aquilae izar distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra artekoa izango da 7,177 egunean behin. Gainerako maximoak hilaren 9an 16:00etan, 16an 19:00etan eta 24an 00:00etan izango dira
- Hilaren 3an: 14:00etan Perseoko Algol izarren distira minimoa. Magnitudea 3,3 ingurukoa izango da 2,867 egunean behin. Gainerako minimoak hilaren 6an 11:00etan, 9an 08:00etan, 12an 05:00etan, 15an 02:00etan, 17an 23:00etan, 20an 19:00etan, 23ean 16:00etan, 26an 13:00etan eta 29an 10:00etan izango dira.
- Hilaren 4an: 00:00etan Delta Cephei izar aldakorren distira maximoa. Magnitudea 3,5 eta 4,4 artekoa izango da 5,366 egunean behin. Gainerako maximoak hilaren 9an 09:00etan, 14an 17:00etan, 20an 02:00etan, 25an 11:00etan eta 30an 20:00etan izango dira.
- Irailaren hasieran, gauaren hasieran, Esne bidea ipar-ekialdetik hego-mendebalde aldera ikus daiteke, Pertseotik Eskorpioiraino.

Udako triangelua bere zenitean egongo da, Arranoaren Altair, Zisnearen Deneb eta Liraren Vega osatuta.

- 7an, Marte ikusi ahal izango da Zezena (Taurus) konstelazioaren Aldebaran izarretik oso gertu. Bi astroek tonu bera izango dute, baina planetaren distira izarrenarena baino ia hiru aldiz biziagoa izango da.
- Hilaren 7an eta 8an ilgora Saturnoren ondoan ikusi ahal izango da.

• Prismatikoeekin edo teleskopioarekin:

- Hilaren 5ean, 05: 24an eta 21ean 19: 37an, Kalisto azpikoko konjuntzioan egongo da; itxuraz, Jupiterren Hego Polotik oso gertu.
- Hilaren 18an, gauaren hasieran, Io satelitearen itzala Jupiterren gainazalean, mendebaldetik ekialdera igarotzen, ikusiko da. Fenomeno hau hilaren 24an ikusi ahal izango da berriro.
- Hilaren 19ean, gauaren hasieran, lau ilargi galilearrak, Io, Europa, Ganimedes eta Kalisto, Jupiterretik ekialdera lerrotatu dira beren ordena naturalean.
- Hilaren 30ean, gauaren hasieran, Kalisto goikoko konjuntzioan egongo da; itxuraz, Jupiterren Ipar Polotik oso gertu.

IRAILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

01	Osteguna. Eguerdian hasiko da 2.459.824 zenbakia duen Juliano eguna(Denbora-escala Jose Scaligerrek sortua, bere aitaren omenez)
----	--

01	Hilaren 1ean egunak 13 ordu eta 11 minutuko iraupena izango du eta 30ean 11 ordu eta 47 minutukoa.
11	Dioklezianoren erako 1739. urtean hasiko da. Hauxe da kristau koptoek erabiltzen duten egutegi erlijiosoa.
17	01:32tan, Eguzkia, itxuraz, Birjina (Virgo) konstelazioan sartuko da (174,2º)
23	01:03tan, Eguzkia, itxuraz, ekliptikaren eta zeru-ekuatorearen intersektzioaren iparraldetik hegoaldera igaroko da. Iraileko Ekinokzioa izango da. Astrologiaren arabera, egun eta ordu horretan, Eguzkia Balantza (Libra)konstelazioan sartuko da; benetan Birjina (Virgo) konstelazioan, itxuraz, aurkituko da; zeren eta, Zodiakoaren zeinuen eta izen bera daramaten Zodiakoko Konstelazioen zeru-longitude mugak ez datoz bat.
26	Egutegi juduaren 5783. urtearen hasiera. Egutegi honek 353 eta 355 egun bitarteko urteak, 12 hilabetetan banatuak, eta 383 eta 385 egun bitarteko urteak, 13 hilabetetan banatuak, konbinatzen ditu. Erlijio hebrearraren arabera, mundua K.a. 3760ko urriaren 6aren baliokidea den egun batean sortu zen. C.

ILARGIA IRAILEAN

Orbital-abiadura Lurraren inguruan
1 km/s= 3600 km/h

01	21:12ean beheranzko nodotik igaroko da. ♎. I.Z. 14h 50m eta D. -17°11', Balantza (Libra) konstelazioan.
03	16:09ean konjuntzio geozentrikoa Eskorpioia konstelazioaren Antares izarrarekin , 2,5°ra.
	18:08ean Ilgora (♋). I.Z. 16h 37m eta D. -25°13', Eskorpioia konstelazioan.
07	18:19ean perigeotik (pG) igaroko da, Lurrarekiko Distantzia txikienetik (364.492 km) pasako da, aurreko apogeoan baino 40.926 km gutxiagora. I.Z. 20h 54m eta D. -23°41', Kaprikornioa konstelazioan.
08	12:34ean konjuntzio geozentrikoa Saturnorekin, 3,7°ra
10	09:59ean Ilbetea (♊). I.Z. 23h 20m eta D. -9°22', Akuarioa konstelazioan.
	20:56ean konjuntzio geozentrikoa Neptunorekin, 2,7°ra.
11	16:31ean konjuntzio geozentrikoa Jupiterrekin, 1,6°ra.
12	Gehieneko librazioa longitudean (l=6,4°).
14	14:48ean goranzko nodotik igaroko da. ♈. I.Z. 02h 48m eta D. 15°26', Aharria (Aries) konstelazioan.
	22:34ean konjuntzio geozentrikoa Uranorekin, 0,7°ra. Ezkutaketa.
15	20:40ean konjuntzio geozentrikoa Pleiadeen kumulu irekiarekin , 2,7°ra.
17	00:52ean konjuntzio geozentrikoa Marterekin, 3,6°ra.
	21:52ean Ilbehera (♉). I.Z. 05h 40m eta D.25°58', Zezena (Taurus) konstelazioan
19	14:43ean apogeotik (aG) igaroko da, Lurrarekiko Distantzia handienetik (404.556 km) pasako da, aurreko perigeoan baino 40.064 km gehiagora. I.Z. 07h05m eta D. 26°22', Bikiak (Gemini) konstelazioan.
20	07:35ean konjuntzio geozentrikoa Bikiak (Gemini) konstelazioaren Polux izarrarekin Artizarrarekin, 1,9°ra.
22	Gutxieneko librazioa latitudean (b= -6,7°).
23	08:09ean konjuntzio geozentrikoa Lehoia (Leo) konstelazioaren Regulus izarrarekin , 4,5°ra.
25	07:24ean konjuntzio geozentrikoa Artizarrarekin, 2,5°ra
	21:55ean Ilberria (♍). I.Z. 12h 14m eta D. 1°21', Birjina (Virgo) konstelazioan.
28	23:42ean beheranzko nodotik igaroko da. ♎. I.Z. 14h 43m eta D. -16°27, Balantza (Libra) konstelazioan.
30	21:29ean konjuntzio geozentrikoa Eskorpioia konstelazioaren Antares izarrarekin , 2,3°ra.

PLANETAK IRAILEAN

Lurraren batez besteko abiadura orbitala: 107.280 Km/h)

Merkurio

Batez besteko abiadura orbitala 172.440 Km/h.

Hilabete honetan ez da ikusiko. Hilaren 23an eguzkiarekin konjuntzioan egongo da; ezin izango da behatu, izan ere, hilaren amaieran goizeko zeruan berragertuko den arren, bere distira oraindik oso ahula izango da. Hilaren hasieran Birjina (Virgo) konstelazioan aurki-tuko da, 12h13m-ko igoera zuzena eta -4°35'-ko deklinazioa izango ditu; Itxuraz ekialderantz mugitzen jarraituko du hilaren 9ra arte, orduan hasiko baita 22 eguneko atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloarekin (Igoera zuzena: 12h25m eta deklinazioa: -7°5'); Hilabetea eta zikloa amaituko da I.Z. 11h38m eta D. 2°1' izanez. Bere magnitudea 4raino jaitsiko da eta hilabetearen amaieran 2,6raino igoko da; beraz, behaezina izango da.

Artizarra

Batez besteko abiadura orbitala 126.000 Km/h.

Zailtasunez ikusteko moduan gauaren amaieran. Ekialde ipar-ekialdeko zerumugatik irtengo da Eguzkia baino ordu erdi lehenago, eta, beraz, oso zaila izango da behatzea. Ekialderantz, itxuraz, mugitzen jarraituko du. Hilabetea Lehoia (Leo) konstelazioan hasiko da (I.Z. 9h49m eta D.14°22'). Hilaren 24an Birjina (Virgo) konstelazioan sartuko da (I.Z. 11h38m eta D. 3° 59'), eta han amaituko du hilabetea (I.Z. 12h09m eta D. 0°36'). Hilabete osoan -3,9ko magnitudearekin mantenduko da.

Marte

Batez besteko abiadura orbitala 86.760 Km/h.

Ikusgai gauaren bigarren erdian eta zerbait gehiago.

Hilaren 15ean, eguzkia sartu eta 4 ordura irtengo da, ekialde ipar-ekialdeko zerumugatik. Behaketa-baldintzak hobetzen jarraitzen dute. Hilabete hasieran Zezena (Taurus) konstelazioan egongo da (I.Z. 04h18m eta D.20° 4'), eta han hilabetea bukatuko du (I.Z. 05h16m eta D. 22°24'). Bere magnitudea -0,4tik 0,8ra igoko da.

7an Zezena (Taurus) konstelazioaren Aldebaran izarretik gertu egongo da.

Jupiter

Batez besteko abiadura orbitala 47.160 m/h.

Ia gau osoan ikusgai. Hilaren 1ean Ekialdeko zeruertzetik aterako da, Eguzkia sartu baino bi ordu beranduago. Hilaren 26an, Eguzkiarekiko oposizioan egongo da, eta, horrez gain, mende honetako Lurretik distantzia txikienera aurkituko da, beraz, hura behatzeko unerik onenean egongo gara. Hilabete hasieran Balea (Cetus) konstelazioan hasiko da(I.Z. 0h27m eta D.1° 10'); baina egun berean Arrainak (Pisces) konstelazioan sartuko da (I.Z. 0h26m eta D.1° 8'). Azaroaren 23an osatuko duen atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloarekin jarraitzen du. Arrainak (Pisces) konstelazioan hilabete bukaera jarraituko

du (I.Z. 0h13m eta D.-0°22'). Bere magnitudea -2,9an mantenduko da.

Saturno

Batez besteko abiadura orbitala 34.560 m/h.

Gauaren lehen erdian, eta zerbait gehiago, ikusgai. Hilaren 1ean, gauaren hasieran, hego-ekialdeko zerumugatik 20°-ra egongo da; eta 30an, hego hego-ekialdeko zerumugatik 25°-ra. Bere atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloarekin jarraitzen du, itxuraz, mendebalderantz igarotzen. Bere behaketarako aldi on batean jarraitzen dugu. Hilabete hasieran Kaprikornioan egongo da(I.Z. 21h33m eta D.-15° 58'); eta han hilabetea bukatuko du (I.Z. 21h26m eta D. -16°29'). Bere magnitudea 0,3tik 0,5era jaitsiko da.

- Hilaren 02an, 13:52ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren mendebaldean
- Hilaren 10an, 09:32ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren ekialdean
- Hilaren 18an, 11:31ean,Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren mendebaldean
- Hilaren 26an, 07:21ean, Titanen gehieneko elongazioa Saturnoren ekialdean.

Urano

Batez besteko abiadura orbitala 24.480 Km/h.

Gau osoan ikusgai. Hilaren erdialdean, egunsentia baino lehentxeago, gauaren hasieran irtengo da eta meridianotik 60°tik gorako altueran igaroko da. Behaketa-baldintzak hobetzen jarraitzen dute. Hilabete osoan Aharria (Aries) konstelazioan egongo da. Hilaren 1ean 03h05m-ko igoera zuzena eta 17°0'-ko deklinazioa izango ditu, eta 30an 03h03m-ko igoera zuzena eta 16°51'-ko deklinazioa izanez. 2023ko urtarrilaren 2an osatuko duen atzeraeraginezko (eretrogradazioa) zikloarekin jarraitzen du. Bere magnitudea 5,7an mantenduko da.

Neptuno

Batez besteko abiadura orbitala 19.440 Km/h.

Gau osoan ikusgai. Ekialdeko zeruertzetik irtengo da Eguzkia sartu ondoren, eta gauaren erdian 40°-ra igoko da. Bere atzeraeraginez-ko (eretrogradazioa) zikloarekin jarraitzen du. Hilaren 16an Eguzkiarekiko oposizioan egongo da. Hilabetea Akuarioan hasiko du (I.Z. 23h40m eta D. -3°27') , eta konstelazio berean amaituko du, koordenatueta ia ezberdintasun nabarmenekin izan gabe (I.Z. 23h37m eta D. -3°47'). Bere magnitudea 7,8an mantenduko da.